Giza baliabideen zuzendaritza

Ione Iriarte Arruabarrena: 72527226-S


09

1.Jarduerari buruzko informazio orokorra

Gure enpresak L.SIA izena du eta sozietate kooperatibo bat da. Bertan lau bazkide izango gara, bakoitzak 5000€-ko ekarpenak eginez eta jarduerari dagokionez jertse eta kamisetak salduko ditugu.
Helbidea: Plaza de Sarriegi. Donostia

Produktuen, merkatuaren eta bezeroen deskribapena

Produktuak:



Gure enpresak jertseak eta kamisetak salduko ditu, horretarako enpresako bazkide eta aldi barean diseinatzaile denak logotipo bat egingo du eta hornitzaileari bidaliko dio honek egin ditzan. Jertse bakoitzaren prezioa 30€ takoa izango da(salmenta prezioan) eta kamiseta bakoitzarena ,berriz, 15€takoa(salmenta prezioan). Marjina komertzialari dagokionez %20koa izango da.

Merkatua:
Gure dendak guk diseinatutako jertseak eta kamisetak eskainiko ditu.Hau esanda, gure konpetentzia beste edozein denda izan daiteke baina, jertseetan eta kamisetetan bakarrik espezializatzea izango da gure estrategia, kontsumitzaileentzat interesgarria izango delakoan.

Hornitzaileak:
Gure enpresak hornitzaile bat izango du.Jertseen prezioa 10€ izango da (erosketa prezioan) eta kamiseten prezioa,berriz, 5€koa (erosketa prezioan).Ordaintzeko moduari dagokionez epe laburreko zorrak izango dira,hau da, gure enpresak irabaziak lortzen dituenean ordainduko diogu hornitzaileari. Ordainketa banku bidez egingo dugu eta hile horren bukaeran kitatuko dugu daukagun zorra, jarritako data errespetatuz. Azkenik, garraioari dagokionez hornitzaileak berak ekarriko dizkigu jertse eta kamisetak, baina ohiko erosleak garenez ez dugu ordaindu beharko garraioari dagokion gastua.

Bezeroak:

Gehienbat bezero gazteak izango direlakoan gaude, izan ere, guk eskainiko ditugun jertse eta kamisetak gazteei begira diseinatu ditugu.Horrek ez du esan nahi gainerako adin taldeko kontsumitzaileentzat egokiak ez direnik, adin ezberdinetako jendea ibiltzen den lekuan kokaturik baitago denda. Entrega datak ,berriz, kontsumitzaileen nahiaren araberakoak izango dira, betiere denborarekin abisatuz gero eta banku bidez, txartel bidez, nahiz efektiboan ordaintzeko aukera izango dute.

2.Enpresako aktibitateak, antolaketa eta langileen ezaugarriak:

Enpresa lau bazkidek(era beran langileak garenak) eta bi langilek osatzen dugu.

1. Bazkidea:

-27 urte

-Ezkongabea

-Enpresan lanean hasi baino lehen beste enpresa batean egiten zuen lan.

Erosketa arduraduna izango da. Bere funtzioa hornitzailearekin harremanetan jartzea izango da, horretarako hornitzailearekin harreman ona izateaz gain, honi buruzko datu guztiak ondo kontrolatuta izan behar ditu, hau da, deskontuak,entrega datak, ordaintzeko modua etab.

2. Bazkidea:

-28 urte

-Ezkondua

-Lau urtetan enpresa batean aritu da lanean eta beraz, esperientzia handia dauka.

Salmenta arduraduna izango da.Bere funtzioa bezeroei ahalik eta jertse eta kamiseta gehien saltzea izango da, beraz, langile honek saltzeko garaian azkarra eta atsegina izan behar du bezeroekin.

3. Bazkidea:

- 29 urte

-Ezkondua

Koordinatzailea izango da. Bere funtzioa enpresa osoaren funtzionamendua aurrera eramatea izango da. Horretarako, hornitzaileak, bezeroak, epeak, entregatze datak , produktua eta merkatua ondo kontrolatuta izan behar ditu.Gainerako bazkide edo langileen artean arazorik balego bere lana izango da hau konpontzea. Beraz, enpresaren kargu garrantzitsuena hartzen du.

4. Bazkidea:
-25 urte
- Ezkongabea
Diseinatzailea izango da. Bere lana logotipoa diseinatzea izango da eta behin diseinatuta daukanean erosketa arduradunarekin hitz egin eta hornitzaileari bidaliko dio honek jertse eta kamisetetan jarri ditzan. Diseinuari dagokionez diseinu berritzailea eta koloretsua izango da.

1. Langilea:
-22 urte
-Ezkongabea
Biltegiko arduraduna izango da. Bere funtzioa jertse eta kamiseten taila eta koloreak kontrolatzea izango da. Horretaz gain, biltegia txukun mantenduko du eta zerbait falta denean erosketa arduradunari esango dio.

2. Langilea:
-23 urte
-Ezkongabea
Administraria izango da. Bere funtzioa enpresaren diru kontuak eta erosketa-salmentak kontrolatzea izango da, akatsen bat dagoen begiratu, datuak eguneratzea, irabaziak begiratzea, zorrak... izango dira bere eginbeharrak.

Ordutegi honetan langile bakoitzaren lan egunak eta orduak azaltzen dira:

DATA ETA ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
10:00-14:00	1,3,5	2,4,6	1,3,5	2,4,6	1,3,5	1,3,5	ITXITA
17:00-21:00	2,4,6	1,3,5	2,6,4	1,3,5	2,4,6	2,4,6	ITXITA

Erosketa arduraduna:1
Salmenta arduraduna :2
Koordinatzailea:3
Diseinatzailea :4
Biltegiko arduraduna: 5
Administraria:6

3.Giza baliabideen ordainketa sistema:

Langileak ordaintzeko sistemari dagokionez langileen soldata aldakorra izango da, izan ere, soldata langile bakoitzaren errendimenduaren araberakoa izango da, hau da, langile bakoitzak egindako lanaren araberakoa izango da. Nola neurtu ??

Normalean lau bazkideek(Erosketa arduraduna,salmenta arduraduna,koordinatzailea eta diseinatzailea) 1000€-ko soldata izango dute. Bi langileek ,berriz, 900€ kobratuko dute bakoitzak. Hala ere, hilabete batzuetan, abuztuan esaterako paga estra bat edukiko dute langile guztiek. Baina, lehen esan dudan bezala aldatu daiteke.

4. Giza baliabideen plangintza:

Suposatuz enpresak negozioa bikoizteko asmoa duela giza baliabideen plangintza honakoa izango da:

Gure enpresan sei langile garela kontuan hartuz, beste bi kontratatuko genituzke. **A eta B langilea.**

A langileak salmenta arduradunaren funtzio berdina beteko luke eta bien artean lana errazago egingo dute. Lanpostu hau betetzeko atsegina, hiztuna eta garrantzitsuena konbentzitzeko gaitasuna izan behar duzu, izan ere, langile honen helburua bezeroari jertseak eta kamisetak saltzea da.

B langileak diseinatzailearekin batera egingo du lan, bere funtzioa kamisetak eta jertseak diseinatzeko ideiak ematea izango da. Horretarako, langile honek imajinazio handikoa izateaz gain ideia berritzaileak izan behar ditu.

5. Giza baliabideen aukeraketa eta prestakuntza:

Bi langile hauek kontratatzeko enpresak **kanpo bilaketa** egingo du, izan ere, gure enpresak ideia berritzaile eta desberdinak behar ditu eta hori barne-igoeraren bidez ezingo litzateke lortu. Horretarako, gure webgunean edo egunkarietan jarriko genuke zer ezaugarri izan beharko lituzketen guk kontratatu nahi ditugun langileek.Azkenik, elkarrizketa pertsonal baten bitartez enpresaren helburuetara gehien hurbiltzen diren langileak kontratatuko genituzke.

Kontratu motari dagokionez, enpresako langileek besteren konturako lan kontratua izango dute, bertan langileek enpresaburuari egindako lana transferitu behar dio, mozkinak enpresaburuarentzat izango direlarik.

prestakuntza ??

6.Erabilitako kontsulta iturriak:

- Kontabilitateko laneko hainbat kontzeptu baliagarriak izan dira.
- Kontratu mota egiteko zuzenbideko lanean oinarritu naiz.

7.Lanaren balorazio pertsonala:

Lan hau egiten gustura egon naiz, izan ere, taldekideen artean ez dugu arazo handirik izan, beti eduki ditugu arazotxoak baina ez dira oso larriak izan. Bestalde, esan beharra daukat giza baliabideen lan honek kontabilitatean eta zuzenbidean egindako lanekin zerikusi handia duela, izan ere, zenbait puntu oso antzekoak dira eta hori normala da beti enpresa berdinaren inguruan ari baikara lanak egiten. Beraz, erlazionatuta egotea ezinbestekoa da.

0,9

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

1. Enpresaren jarduerari buruzko informazio orokorra

IZENA ETA EGITURA JURIDIKOA: BEAUTY S.L. IZANGO DA GURE ENPRESAREN IZENA ETA EGITURA JURIDIKOARI DAGOKIONEZ, ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATEA IZANGO DA. EGITURA JURIDIKO HAU AUKERATU DUGU ETA EZ BESTEREN BAT; EGOKIA DELAKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT, BAZKIDEOK EZ DUGULAKO SOZIETATEAREN ZORREN GAINEKO ERANTZUKIZUNIK ETA GUTXIENEKO KAPITAL-KOPURUA (3000€) ESKURAGARRIA DELAKO.

Bazkideen izen- abizenak Sonia Tabuyo Mellado, Aimar Urcola Zubia, Xabier Serrano Alvarez eta Leire Otaegui Otamendi dira eta ez gaude bazkideetako inor ezkonduta. Enpresa, aurretik aipaturiko 4 bazkidek osatuko dugu. Kapitalaren zenbatekoa eta sortze data: Hasiera batetan, partaide bakoitzak 5000€ko zenbatekoa ezarriko dugu, betiere diru kopurua handitzeko ateak irekita utziz. Sortze datari dagokionez, enpresaren sorrerari buruz, ideiak botatzen, hornitzaileekin kontaktuan jartzen... abenduaren 1ean hasi ginen.

Gure sozietatea Beauty S.L. deituko da. Enpresaren objetu sozialari dagokionez, sozietatearen objektua dendaren irekierarekin batera, salmentak hasteaz gain gure bezeroak gu ezagutzea, nortzuk garen, zer produktu mota saltzen dugun, nori zuzenduta dagoen, zein den gure prezio/kalitate erlazioa, hau da, negozioa martxan jartzea eta emaitza positiboa lortzea arrakasta lortuaz batera izango da. Horretaz gain, denda honetan eguneroko arropa deritzogunaren barruan era guztietako arropa salduko da: galtzak, kamisetak, kazadorak, txalekoak, gerrikoak, gonak...

Sozietatearen helbideari dagokionez, Donostiako zentroan irekitzeko asmoa dugu gure negozioa, hain zuzen ere, "Libertad" kalean. Hortxe irekitzeko asmoa dugu, iruditzen baitzaigu bertan dagoela lehia eta saltzeko aukera handiena, beraz baita eskaintza handiena ere. Hiriaren kanpoaldean jarriko bagenu denda oso ospetsua izan beharko luke, salmentak aurrera atera ahal izateko. Bezeroek espreski denda horretara bakarrik etorri beharko bailukete. Hori, ordea, oso zaila da denda ireki berri batentzat, hiriaren kanpoaldean arrakasta lortzea hasiera batetan, nahiz eta denbora pasa ahala batek daki.

Gure sozietatea denbora mugagabez eratuko da. Hori, bezeroen, salmenten, gure produktuen aukeraketa onaren... arabera joango da. Nahiz eta, bazkide guztiok argi dugun lehenengo hilabetean emaitza positiboak lortzea zaila izango dela. Hala ere, ilusioak eta lana egiteko gogoak asko errazten ditu gauzak.

Sozietatearen kapitala 20000€ takoa izango da, bazkide bakoitzak 5000€ jarriko baititu. Gure kapitala partizipaziotan banatua dago, honela, bazkide bakoitza partizipazio guztiaren %25aren jabe izango da, partizipazio bakoitzaren balio nominala 2€ izanik.


Erantzukizun Mugatuko Sozietatea: enpresa txiki eta ertainetarako egokia da, gutxienez 3000€ko kapital-kopurua izan behar du, ekarpenaren truke partizipazioak jasotzen dira, bazkideek ez dute sozietatearen zorren gaineko erantzukizunik, partizipazioak libreki transmititzen dira, sozietatearen eraketarako eskritura publikoa Merkataritzako Erregistroan inskribatzea beharrezkoa da, bazkide bakar batek eratu dezake eta partizipazio guztiak eratuta harpidetuta eta osorik despoltsatuta egon behar dute eraketa momentutik.

Sozietatearen ekitaldi ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31ean amaituko da. Urteko kontuez administratzaileak (Sonia eta Xabier) arduratuko dira. Epeari dagokionez, 3 hilabetero egin beharko dira urteko kontuak eta administratzaileak arduratu beharko dira hau dena eguneratuta eramateaz. Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta memoria izango dira. Mozkinen banaketa, bazkideok erabakiko dugu. Batzuetan banatu egingo dira eta beste batzuetan ez. Mozkinak banatuko dira bazkideon gehiengoa ados badago. Hala ere, sozietatearen fondoetan beti geratuko da irabazien %15a.

2. Enpresako funtzioak eta egitekoak

Produktuak:

Ezaugarriak: Eguneroko arropa salduko dugu, adin guztietara emakumeei zuzenduta egongo da. Gure dendan eskura egongo diren produktuak hauek izango dira: galtzak, nikiak, gonak, alkandorak, gerrikoak, jertseak, txalekoak eta kazadorak.



Prezioak: Gure produktuak nahiko merkeak izango dira, jende guztia gure arropa erosteko aukera izatea nahi dugulako. Merke saldu ahal izateko, hornitzaileei arropa prezio baxuetan erosiko diegu.

Marjina komertziala: Marjina komertziala produktu guztiei berdina ezarriko diegu, hain zuzen ere, %100a.

Merkatua:

Historia: Enpresaren bazkide lau enpresariak izanik, hiruk esperientzia zuten enpresa eramateko garaian. Lauren artean enpresak behar zituen figurak betetzen zituzten eta enpresa sortzea erabaki zuten.

Politika Komertzialaren deskribapena: Enpresak zenbait publizitate kanpaina egingo ditu, publizitatea arlo askotan eginaz. Esaterako: autobus paradetako markesinetan kartelak ipiniaz, gazteentzako deskontu kanpainak eginaz, modelo konkurtso bat osatuaz (gure enpresak saltzen dituen arropekin noski, eta amateurra) e.a.

Merkatua: Zabala izango da. Genero baterako arropa egingo dugu, hau da, emakumezkoengan zentratuta. Ahalik eta arropa barietate handiena eskainiko dugu, heldu eta gaztetxoentzat.

Konpetentzia: Prezioetan batez ere konpetentzia zaila izango den arren, gure enpresak ahaleginak egingo ditu arropa merkeagoa saltzeko, mozkin gutxiago irabaziaz, baina horrela arropa asko eta merkea salduaz. Horrez gain, konpetentziari aurre egiteko desberdintasun nagusiena, marka berdinak zenbait genero desberdinetako arropa izango duela da, hala, jende gehiagoren beharrak asetzeko gai izango gara.

Marjina: Arroparekin aterako duen marjina berdina izango da produktu guztietan, horrela bai gazte eta helduentzako arroparekin %100ko marjina lortuko dugu..

<u>Hornitzaileak</u>:

Ezaugarriak: Hornitzaileak lokalak izango dira, hau da, hornitzaileak herrialde bertakoak izango dira (Gipuzkoa).

Ordaintzeko erak: Ordainketak lehengai motaren araberakoak izango dira. Adibidez, txalekoak eta alkandorak momentuan ordainduko diren produktuak izango dira. Aldiz, bestelako produktuak hilabetero ordaindu egingo dira.

Entregatzeko data: Produktuak entregatzeko, hornitzaileei hilabete baten epea jarriko egingo zaie. Epe honetan produktu guztiak entregatzen ez badira, hornitzaileak behartuta egongo dira, kontratuan horrela jartzen baitu, %10 deskontua egitera produktua guztietan.

Deskontu motak: Hornitzaileak %5 deskontua ezarriko dute badira hornitzaileak eskaria handi hau eskertuz 10 unitate dohain emango dituzte.

<u>Bezeroak</u>:

Gure arropa eguneroko jantzialdietarako edo egunerokotasunerako zuzenduta egongo da, kalitate oneko, merkea, komodoa eta polita izango denez gure dendara ezaugarri hauekin identifikaturik sentitzen diren bezeroak etorriko dira.

Kobratzeko era, hasiera batetan bakarra izango da. Denda bat denez salerosketa egiten den momentuan ordaindu beharko da erosirikoa.

Entregatzeko datari dagokionez, salerosketa momentuan emango zaio bezeroari produktua. Konponketa batzuk, bajua hartu... egin behar bada, kasu honetan, 2-3 egun itxaron beharko ditu bezeroak produktua eskuratu aurretik jostunarengana eraman beharko baitira.

Entregarako era, berriz, eskutik eskukoa izango da, bezeroak dendara etorri beharko baitu produktuaren bila.

Marjinari dagokionez, ahalik eta irabazi gehien lortzen saiatuko gara bezeroek eginiko salmentetatik, hau da, %100koa.

Epe ertaineko estrategia komertziala oso argi dugu; guk produktu ugari erosiko dugu, ahalik eta merkeen, horrekin batera bezeroei guk ere ahalik eta eskuragarrien eskainiko diegu produktua, beti ere marjina batekin. Era honetan, bai bezeroak eta baita jabeak ere ados egongo dira. Horretaz gain, aldizkako deskontuak eskainiko ditugu. Gure helburu nagusia bezeroak behin generoa probatzean errepikatzea baita.

Bitxikeria gisa esan beharra dago, bezeroek eskuragarri izango dituztela dendarekin zerikusia duten hainbat gauza gure webgunean, hain zuzen ere, publizitateaz arduratzen den profesional independentea arduratuko da atal honetaz.

3. Giza baliabideen deskribapena:

Gure enpresan bost langilek hartuko dugu parte, lau bazkideek (Leire, Xabier, Sonia eta Aimar) eta langile extra batek (Maite). Sailak ondorengoak izango dira: marketin saila, administrazio saila eta salerosketa saila.

Bazkide guztien artean hartutako erabakia izanik, zuzendaririk ez da egongo, bazkide guztiok arduratuko baikara enpresaren zuzendaritzaz. → ?

Marketin saila eta giza baliabideen saila: Bertako arduradunak Leire Otaegui Otamendi eta Aimar Urcola Zubeldia izango dira. Merkatua aztertu beharko da bezeroen nahiak ongi betetzeko, horretarako ikerketak egingo dira ea momenturo bezeroek zer nahi duten jakiteko. Gainera, beste enpresak ere aztertuko dira, gurea haiekiko lehiakorra izan dadin, bai produktuen baita hauen prezioen inguruan ere. Giza baliabideei buruzko gaiei, arazoez, eginbeharrez... arduratu beharko dute.

Administrazio saila: Bertako arduradunak Sonia Tabuyo Mellado eta Xabier Serrano Alvarez izango dira. Beren betebeharra batez ere kontabilitate lana izango da. Enpresak dituen baliabideak aztertu beharko dituzte eta egoera ekonomikoa zein den jakin, baina marketin sailekoei adierazi ere, horrela hauek

zenbat gastatu dezaketen jakiteko, esaterako, publizitatean. Balantzeak eta urteko kontuak egitea ere beraien lana izango da. Horrez gain salerosketa sailean ere parte hartuko dute.

Salerosketa saila: Arduraduna Maite Aguinaga Balerdi izango da, bazkidea ez den langile bakarra. Bere ardura bezeroen erosketa erraztea izango da, eroso sentitu daitezela eta gure dendatik gustura irten. Ahalik eta gehien eta hobekien saltzeaz gain, erosketa guzti hauek baliatuko diogun ordenagailu programa batetan sartu beharko ditu, horrela dena kontabilizatua egon dadin. Horrez gain salerosketa sailean ere parte hartuko dute.

ER Erosketa ??

Langileen ezaugarriei dagokienez, jarraian langile guztiak deskribatuko ditut:

Xabier Serrano Alvarez, bazkidea, 27 urte eta enpresaritzako ikasketak ditu, hain zuzen ere, finantzetan espezializatu zen. Esperientziarik ez du, izan ere, master bat egin baitzuen eta atzerrian egon baita ingelesa ikasten.

Sonia Tabuyo Mellado, bazkidea, 23 urte eta enpresaritzako ikasketak ditu berak ere eta Xabierrekin batera finantzetan espezializatu zen. Esperientzia berriz, enpresa bateko kontabilitatea eramaten zuen gu lauron artean enpresa bat irekitzea proposatu genion arte.

Aimar Urcola Zubeldia, bazkidea, 23 urte eta enpresaritzako ikasketak ditu, marketing sailean espezializatu zen. Aimar aldiz, gradua amaitzean oposaketak prestatu eta osakidetzan, administratzaile modura jardun du lanean gurekin elkartu arte.

Leire Otaegui Otamendi, bazkidea, 22 urte eta enpresaritzako ikasketak ditu, hain zuen ere, giza baliabideen sailean espezializatu zen eta ongi moldatzen da. Esperientziaz hitz egitean, Leirek, gradua amaitu bezain laster, zortea eduki zuen eta lana aurkitu zuen enpresa batean, nahiz eta ez zuen giza baliabideen departamentuan lana egiten, baizik eta administrazioan. Azkenik, Maite Aguinaga Balerdi, aparte kontratatutako langilea da, 26 urte ditu eta modako modulu bat du. Esperientzia asko du, Beauty S.L. enpresara iritsi aurretik beste denda batean 5 urtez saltzaile bezala lan egin baitzuen, enpresa likidezia faltagatik itxi zuten arte.

4. Giza baliabideen ordainketa sistema

Maiteren soldata aldakorra izango da eta ez finkoa, iruditzen baitzaigu langileak motibatzeko eta enpresaren hobekuntzarako hoberena dela soldataren

zati bat langilearen errendimenduaren araberakoa izatea. Soldata soilik dirutan izango da, ez espezietan, eta atsedenaldiak ere barne daude. Negoziazio kolektiboak soldata minimo bat ezartzen du, eta hori Maiteren oinarrizko soldata (785,59€; 2009. urtean) izango da, ondoren, salmenten araberako irabaziak, hau da, errendimenduaren eta helburuen lorpenaren araberakoa izango da, horrela bada, soldata osagarri bat irabaziko du. Gure enpresan argi baitugu lana ordaintzen dela eta ez aulkian eserita egotea, ordainketen atzean berdintasuna egon behar duela iruditzen baitzaigu. Izan ere, ordainketa politika ona izatea enpresarentzat asko balio du, langilea motibatzeko, langile hoberenak erakartzeko... Horrez gain, aipatu beharra dago beste edozein zorren aurrean, lehenengoa beti soldata ordaintzea izango dela.

5. Giza baliabideen plangintza: Enpresak hurrengo 2 urteetan negozioa bikoiztuko balitz...

Bostgarren puntuan azaldurikoa gertatuko balitz, Beauty S.L. sozietatean aldakuntza batzuk egin beharko lirateke. Bi pertsona berri kontratatu beharko liratekeela iruditzen zait eta pertsona hauen lanpostua saltzailearena izango da, hau da, Maite Aguinaga Balerdirena bezalakoa. Aipatu beharra dago bazkide ez diren langile guztiei berdin ordainduko zaiela oinarrizko soldata behintzat, lehen azaldu dudan moduan soldata osagarria norberaren errendimenduaren araberakoa izango baita. Horrez gain, hautagaiek hainbat ezaugarri bete beharko dituzte: modari buruzko jakinduria eduki beharko dute, bezeroekiko eta gainerako lankideekiko errespetua, esperientzia (faktore garrantzitsu bat dela uste baitugu), langilea, umila, irekia, jatorra, pazientzia duena... izan beharko du.

6. Giza baliabideen aukeraketa

Langile hauek Maiteren kasuan bezalaxe lokalizazio agentzien (Lanbide, Inem, infojobs, infoempleo...) bidez, ezagunen artean, prentsa bidez edo internet bidez bilatuko ditugu, uste baitugu era hauek direla egokienak gure enpresako langileak bilatzeko. Horretarako prozesu bat jarraituko dugu: Lehenik eta behin, aurretik aipatu bezala giza baliabideen bilaketa edo aukeraketa gure (bazkideon) ezagunen artean egiten saiatuko gara, hau da gertukoei (gurasoei, lagunei...) galdetuz eta hauek jakinaren gainean jarriz. Era honen bidez ez badugu aurkitzen gure dendan lanaldi osoan lan egiteko prest dagoen jendea, lehen aipaturiko baldintzetan, lokalizazio agentzien, internet eta prentsa bidez saiatuko gara, bertan, gure beharrak eta baldintzak argi utziz. Puntu hau amaitu aurretik, aipatu beharra dago langile posibleak aurkituz gero, hauei curriculuma eskatuko zaiela, erreferentziak kontrastatuko direla, elkarrizketa bat egingo zaiela eta beraien esperientzia kontutan hartuko dela, iruditzen baitzaigu fase hauek denak garrantzitsuak direla gure enpresaren garapenerako. Aldiz, ez ditugu test profesionalak, nortasun testak eta test psikoteknikoak egingo, iruditzen

baitzaigu ez dela beharrezkoa gure enpresarentzat. Azkenik, azken erabakia dator, hau guztia egin ondoren, uste dugu Beauty S.L enpresan lan egiteko langilea aurkituko dugula.

7. Giza baliabideen kontratazioa (zuzenbideko lana)

Kontratuei dagokionez bi kontratu mota egingo ditugu: batetik lau sozioek izango duguna da, autonomoak izango gara, bestetik Maiteri lan kontratu mugatua egingo diogu.

Maiteren kontratuari dagokionez, gure enpresa berria dela eta, ondo jakin gabe gure etorkizuna zein izango den, soilik 2011-2012 kanpainarako kontratua egingo diogu, lau urtaroetan ea zer moduz moldatzen den ikusteko eta bere ezagutzak zabalak direla egiaztatzeko. Horren guztiaren ondorioz, egingo diogun kontratua mugatua izango da (denborari dagokionez). Lanaldiari aipua eginez, bere lanaldia osoa izango da, zortzi ordu egunean, bost egunez, hau da, asteko media berrogei ordukoa izanik. Langilea kaleratu beharko bagenu, bere errendimendu kaxkarra dela eta edota dendaren beharretara moldatzen ez delako, kalte ordainak ordaindu beharko genizkioke, egindako lanaren arabera izango liratekeenak. Kontratuaren forma librea den arren, gauzak idatziz egitea gustatzen zaigu eta bertan kausa argi azalduta egongo da. Maite bitartekari agentzia baten anuntzio bat ipiniz ezagutu genuen, gero aurrez-aurreko bilera bat egin genuen bera ezagutzeko, bere curriculum-a egiazkoa zela egiaztatzeko eta ea bere izaera gure enpresarekin bat zetorren ikusteko.

Maiteren eskubide eta betebeharrak: berak obedientzia eta errendimendu egoki bat zor dio enpresari. Eskubideei dagokionez, diskriminazio eza, arrazakeriagatik ezta adinagatik diskriminaziorik ez, osasuna egokia ez denean lanera etorri behar ez izatea e.a. dira, besteak beste. Betebeharrei dagokionez, bere eginkizuna ahalik eta lan produktiboena egitea izango da, ez behar dituen baino ordu gehiago sartzea, baizik eta lanean ari den bitartean bere etekina maximizatzea. Bere eginkizuna, lehen aipatu bezala, salerosketa saila izango da.

Soldatak bi zati izango ditu, bat fijoa eta bestea aldagarria.
Maite neska jatorra eta gaztea izanik, (26 urte besterik ez ditu), aurreikusi dezakegu agian haurdun gera zitekeela, hori dela eta lanaldia murrizteko aukera edukiko luke %25ean (hau da, egunean 8 ordu egin ordez, 6 egitea, edo, asteko media 30 ordukoa izatea).

Lanaldi murriztapenari dagokionez, supostu desberdinak daude: batzuk ordainduak eta besteak ez. Ordainduak: edoskitzea, ume goiztiarrak izatea (ospitalizazioa behar dutenak). Ordaindugabeak: 8 urte berako adingabeen edo ezgaien zaintza legala dutenak, 2 gradu bitarteko familiarren zaintza, genero

biolentziaren emakumezko langilea bada, edo enpresak arazoak balitu, teknikoak, antolakuntzakoak, ekoizpenezkoak edota ekonomikoak. Enpresak arazoak izango balitu, Maite kaleratu baino lehenago, lanaldia murriztu egingo litzateke eta desenplegutik %50a jasoko luke.

Laneko festen inguruan: Urtero finkatzen direnak izango dira, ordainduak eta urtean hamalau egun. Atsedenaldiak: egun batetik bestera 12 orduko atsedena izango du gutxienez, lanaldi jarraia izango balu, hamabost minutuko atsedena izango luke. Astean gutxienez egun eta erdi jai izan behar den arren, Maitek astean bi egun jai izango ditu. Oporrei dagokionez: urtean 30 egun natural izango ditu. Oporrak hartzeko garaian, sozioek ez dute lehentasunik izango zenbait egun konkretu hartzeko garaian, urtero bazkide eta langile desberdina izango baita lehena aukeratzen oporrak, horrela urtero txandakatuz.

8. Giza baliabideen prestakuntza

Prestakuntza, enpresak langileei beraien ezaguerak eta gaitasunak hobetzeko eta trebatzeko ematen den prestazioa da. Beauty S.L enpresan argi duguna da, prestakuntza gero eta enpresa jarduera garrantzitsuagoa dela eta ingurunea azkar aldatzen ari denez gure enpresak lehiakorra izateko bertan trebatu beharko duela. Beharrezkotzat jotzen dugu prestakuntza, arropa denda bat delako eta merkatu handia eta zabala duelako. Prestakuntza egingo den lekuari buruz hitz egiterakoan, lantokian egingo da eta prestakuntzaren objetuaren arabera, langileek formazio berezia jasoko dute, hau da, lanpostuari egokitutako ikastaroak izango dira, hau da, arropa denda baten funtzioei zuzendurikoak. Adibidez, azken tendentziei buruzkoa, moda berriak... Ikastaro hauek internet bidez eta moda aldizkarietan bilatuko nituzke, aukera handia baitago.

9. Lana egiteko erabili diren kontsulta iturrien zehaztapena

Web orriak:

- http://convenios.juridicas.com/convenios/comercio-en-general-rs-2009-guipuzcoa.html
- http://www.trendencias.com/
- http://www.cosmohispano.com/moda-invierno-2011-2012
- http://iedmadrid.com/formacion/ied-moda/
- Kontabilitateko eta Zuzenbideko laneko hainbat kontzeptu baliagarriak izan dira

10. Lanaren balorazio pertsonala

Lanaren balorazio pertsonalari buruz esan nezake oso gustura sentitu nahizela giza baliabideen lana egiten. Lehenik eta behin, gustatuko litzaidake aipatzea aurretik entregaturiko lanen (zuzenbidekoa eta kontabilitatekoa) antzekoak izan direla hainbat atal, izan ere, lan guztiek normala den bezala zerikusia eduki behar dute beraien artean, enpresa edo proiektu berdinaren inguruan jorratuak baitira hiru lanak. Bukatzeko, lan hau egitea interesgarria iruditu zaidala besterik esatea ez zait geratzen, lan honi esker giza baliabideen zuzendaritzaren gaia gehiago sakondu baitut eta era berean ikasi ere bai.

LEIRE OTAEGUI OATMENDI, 72543399-L